

DONOSTIA / Altza eta Larratxoko liburutegiek ipuin irakurketak eskainiko dituzte aste honetan ere

Ekitaldiak 3 eta 5 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude eta sarrera doakoa da

DONOSTIa. Altza eta Larratxoko liburutegiek txikienei zuzendutako ekitaldiak prestatu dituzte aste honetarako. Oraingo honetan ere, euskarazko ipuinen irakurketa eskainiko dute. Saioak 3 eta 5 urte bitarteko gaztetxoek zuzenduta daude.

Bihar, 17.30etik aurrera, proposamena Casares Tomasene kultur etxean izango da. Bertara gerturatzen direnek Xirula, xiruli, ipuinak gutxienez bi! lana entzuteko aukera izango dute.

Ostegunean, berriz, ekitaldia Larratxoko liburutegian izango da. Saioa 18.00etan hasiko da eta Kolorin kolorete, ipuinak datoz tente! izeneko istorioa eskainiko diete kultur gunean biltzen direnei.

Bi egunetan sarrera doakoa izango da. Ipuin irakurketak urte osoan zehar auzoetako kultur etxeetan egiten ari dira. Donostia Kulturak antolatutako ekimen honek gaztetxoek programa zabala eskaintzeaz gain, euskaraz idatzitako lanen irakurketa du helburu. >a.a.